



## **BOLUNTARIOTZA PROIEKTUAK UDA 2018**

### **1. ARGENTINA – San Salvador de Jujuy San Joan Bautista de La Salle Eskola**

San Salvador de Jujuy-ko Malvinas Argentinaseko auzoan **heziketa eta pastoral ekintza** ezberdinetan parte hartuko duten boluntarioak.

Lankidetzaz **arlo ezberdin hauetan** eskaini ahal izango da:

1. Oporraldian:
  - neska-mutilentzat jolasak eta aktibitate tailerrak antolatu,
  - irakasleentzat tailerrak...
2. Lehen hezkuntzan nahiz bigarren hezkuntzan: laguntza psikopedagogikoa, irakurketa eta idazketa tailerrak, programa informatikoak.
3. Gazte taldeen pastoral ekintzetan parte hartu.
4. Auzoko jarduera eta talde ezberdinetan parte hartu: Oinarrizko Eliz Elkarteak (Comunidades Eclesiales de Base = CEBS), aitona-amonen jangela...

**Parte-hartzaile:** 3 edo 4, 25 urtetik gorakoak.

**Data:** uztailaren hasiera – abuztua (40ren bat egun)



## 2. BOLIVIA – Trinidad – Beni

**Fabián Vaca Chávez Eskola, Adin txikikoen Maná Zentroa, Esperantza Harrera Zentroa eta Mocoví-ko Kartzela**

Zentro ezberdinetan **hezkuntza- eta formazio-jardueretan** parte hartuko duten boluntarioak.

Lankidetzaz **arloan ezberdin hauetan** eskaini ahal izango da, besteak beste:

1. Fabian Vaca Chavez eskolan: Laguntza psikopedagogikoa haur-eskolan eta lehen hezkuntzan (1.tik 6.era) eta aisialdiko jarduerak.
2. Adin txikikoen Maná Zentroan: Laguntza zenbait ikasgaietan eta aisialdiko jarduerak.
3. Neskentzako Esperantza Harrera Zentroan: aisialdiko jarduerak eta eskola-laguntza.
4. Formazio jarduerak Mocoví-ko presoekin.

**Parte-hartzaile:** 5 edo 6 pertsona.

**Data:** uztailaren hasiera – abuztua (40ren bat egun)



## 3. BOLI KOSTA– Abidjan Akwaba Etxea

**Akwaba Etxeko heziketa-zereginetan** esku hartuko duten boluntarioak Anaien elkartearekin eta Etxeko hezitzaileekin batera.

Lana **arlo hauetan** burutu ahal izango da:

1. Etxeko hezitzaile bat gehiago izanik: presentzia eta hurbiltasuna mutilen artean.
2. Etxeko eta auzoko neska-mutilen jardueretan lankidetzaz: berrikuspen klaseak, kirolak eta jolasak, kultur eta artelan jarduerak...
3. Etxetik kanpo mutilek izango duten kanpaldian parte hartzeko aukera.
4. Etxeko hezitzaileekiko gertutasuna. Hezitzaileei zenbait formazio-tailer eskaintzeko aukera: psikopedagogia, aisialdiko jarduerak...

**Parte hartzaile:** 3 pertsona, 25 urtetik gorakoak.

**Profila:** Hezkuntza-esperientzia duten pertsonak, frantsesez moldatzen direnak, elkartean bizitzeko gai izanik.

**Data:** uztailean (4 astebete).